

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: UNAI BREA

Zuiako koadrila (Araba)

Ageriko altxorrak

Diotenez, altxorrez beteta dago Aramaio. Historian zehar bosten berri izan da gutxienez, gehienak Orixol mendiaren magalean lurperatuak. Ez dira elezahar hutsak: bat behintzat agertu izan da. Beste laurek ezkutatuta segitzen dute, baina Aramaio, Zuiako koadrila osoak bezala, baditu beste mila altxor denen begi-bistan. Bailarak, orain, ateak ireki dizkie altxor bilatzaileei.

Ia 500 kilometro koadro, Araba osoaren seirena, eta 8.500 biztanle baino ez. Zuiako koadrilan, ezinbestean, natura da gailen, ondoko datuak argi uzten duenez: eskualdeko eremuaren %30 Gorbeaiako eta Urkiolako parke naturalen barruan dago. Araba ozeaniko honetan ia dena da berdea, horitik ere zerbait baduen arren. Arrazua-Ubarrundian, koadrilako sei udalerrietatik ekialdekoenean, Lautada –letra

larriz, hala baita Arabakoa– hasten da. Ez da txangozalearentzat balio gutxiagokoa horregatik; Ullibarri-Ganboako urtegia dago bertan, eta haren bazterretan paseo ederrak egiteko aukera ugari. Ez urrunegi, Legutianon, beste urtegi handi bat dago, Urrunagakoa. Bietan dago gordeta Gasteiz eta Bilboko etxeetan edaten den ura.

Hiri horietatik edo beste edozeinetatik ihesi lasaitasun egarritz doanaren-

tzat ibilbide gidatuak antolatu ditu aurten Zuiako koadrilak (ikus www.cuadrillazuia.com). Oraintsu hasi dira, eta urrira arte iraungo dute. Berantiarrenek izango dute, beraz, udazkeneko xarmaz gozatzeko aukera Zuiako paisaietan.

Ederrenetakoa, pagadiz eta hariztiz zipriztindua, Oroko Ama Birjinaren santutegiaren inguruan dago, koadrila osoari izena ematen dion

Oroko Ama Birjinaren santutegia, Zuia udalerrian. Atzean Murgia ikus daiteke besteak beste.



ZUIAKO KOADRILA



EDORTA SANZ



ANTONIO GARCIA

Goian, Goiuriko ur-jauzia eta –eskuman– Barajuen, Aramaio udalerriko herririk zaharrena. Behean, Aramaioko udaletxea, Ibarra herrian.



EDORTA SANZ

udalerrian. Bera da zabalena, eta berak du herririk handiena, Murgia. Baita gailurrik garaiena ere, zein eta Gorbeia. Oroko haitzak ez daude hain altu, baina ikuspegi ederra eskaintzen dute. Beharbada horregatik, Burdin Arotik bizi izan dira gizakiak bertan. Askoz hurbilago denboran, XII. mendean, santutegia eraiki zuten, nahiz eta gaur egun ikus daitekeena lau mende geroagokoa den.

Oroko santutegia ibilbide erromaniko deritzonaren erdia da. Beste erdia Olano herria dugu, Zigoitiako Udalean. Aipatzekoak ditu errota eta eliza; lehenbizikoa lanean oraindik.

dituzu; ez galdu aukera “Idiazabal”-en bat edo beste dastatzeko.

Izarratik bi kilometrorra dago Gouiuri. Orain dela urte gutxi arte Gujuli izan da herriaren izena, eta oraindik askoz ezagunagoa da izen horrekin. Hainbat harribitxi ditu Gouiurik, nabarmenena Altube ibaiak egiten duen 100 metroko ur-jauzia.

Aramaioko elezaharrak

Zuiako koadrilako mapan ageri den ipar-ekialdeko kirtena Aramaio da, Arabako herri euskaldunena, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko txokoa. Hura du xede hirugarren ibilbideak,

batik bat gune biri arreta emanez: Ibarra eta Barajuen. Lehenbizikoa Aramaioko herrigune nagusia da, bigarrena berriz, udalerriko herririk zaharrena. Garai batean, han biltzen ziren herriko kapareak, eta elezaharren arabera, handik igarotzen ziren hegaz, Anbototik Gorbeiarako txangoan, sorginak, beste mota bateko bileretara seguruenik.

Anboto, izan ere, oso hurbil du Aramaio, tontorra bizkaitarra izan arren. Lau kilometro besterik ez daude Zabalandiko lepotik, Arangioko mendilerroan. Ekialderaxeago, Belamendin, abade ehiztari baten arima omen dabil. Leiendak dio igande batez meza ematen ari zela, txakurren zaunka entzun eta lana bertan behera utzita lasterka irten zela elizatik, txakurrek eraikitako erbia harrapatzera.

Elezaharretan aberatsa da Aramaio, eta elezaharrez baliatuta emango dizute bertako historiaren berri hara egindako bisitan. Egunaren amaieran, Barajuengo Olatezar gaztandegian, mokadutxo bat ahoratzen duzun bitartean goza dezakezu istorioez. Ingurura begiratu eta zalantzarik ez duzu izango egia direla. ■

ZUIAKO KOADRILA

Bisitaren informazio gehiago: 945 24 38 28

ibilbidea	prezioa
I eta II. ibilbidea	4 €
II. ibilbidea antzeztas (uztailaren 12an)	5 €
III. ibilbidea	
Taldea < 8 p.	6 €
Taldea > 8 p.	5 €

Cuadrilla de Zula-ko Koadrila

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

www.cuadrillazuia.com